



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ABELETXE EGOITZAKO EGOILIARREN SENIDEEK VITALITASEN ETA ALDUNDIAREN KUDEAKETEA KRITIKAU DABE BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- Ermuko Abeletxe egoitzan hildako egoiliarren familien ordezkariak pandemian zehar erabiltzaileen “ia erdia” galdu izana eta kudeatzaileen “profesionaltasun faltea” salatu dabe gaur Eskaeretarako eta Herritarrakazko Harremanetarako Batzordean, eta zaintza sisteman hobekuntzak eskatu ditue.
- Batzarretako taldeek, Vitalitasen zentroan pandemiak eragin dituan hildakoen datuak jasoko dituan txosten bat Aldundiari eskatzea erabagi dabe aho batez.

(Bilbon, 2021eko zezeilaren 5ean). Ermuko Abeletxe egoitza pribaduan hildakoen hiru senide Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri dira gaur, “erantzun bila”, eta personen biziei jagokenez COVID-19ak zelango eragina izan dauen azaldu deutsee batzarretako taldeei. Eskaeretarako eta Herritarrakazko Harremanetarako Batzordean egindako agerraldian, Maria Jesus Beitia bozeroaleak, erantzukizunak euren gain hartzeko eskatu deutse Vitalitas enpresa pribaduari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, itundutako plazak diruz laguntzen ditu-eta.

Familia horreek adierazo dabenez, pandemia hasi zanetik Ermuko egoitzan “guztira 50 persona” hil dira; horreetako “31” 10 eguneko epe laburrean. Martitik, zentro horretako egoiliarren “ia erdia” hil da, neurri handi batean egoitzaren zuzendaritzaren kudeaketa “txarraren” ondorioz, eta erantzukizunak eskatu deutsiez. “Kudeaketa onagaz egoiliar batzuek bizirik jarraituko leukie”, esan dau Beitiak.

Senideen eretxiz, arreta zerbitzuen “pribatizazioak heriotza dakar” eta adinekoen zainketea “funts putreen” negozio bihurtu dala salatu dabe.

Bizkaiko ordezkari politikoen aurrean, familiek ohartuarazo dabe “erantzun bila” joan dirala Batzarretara. Erantzunak bilatzen ari dira jakiteko kutsatzeak zergaitik ezkutau ziran, medikuen txostenak zergaitik ez etozan bat egoitzan esaten zanagaz, edo gaixorik egozan senideak zergaitik iritsi ziran “egoera tamalgarrian, deshidratauta eta desnutrizino egoeran” osasun zentroetara.

Erantzukizunak bilatzeko ez ezik, egoitzan eta zaintza sisteman “hobekuntzak” eskatzeko be etorri dira senideak. Pandemia “inflexino puntu bat” izatea gurako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

leukie, “aldez aurretik jakinarazo barik” ikuskapenak egiteko, gerokultoreen ratioa handitzeko, ikerketa bat edegiteko eta azalpenak emoteko, egoitzetako baldintza orokorrak hobetzeko eta beharginakaz komuniketako kanalak sortzeko, “bildurra dala eta isilik dagozalako”. Senideek esker oneko berbak izan ditue beharginentzat, gure senideengaitik “dana emon dabelako”. “Ez jake maitasuna eta gizatasuna falta izan”.

Zentzu horretan, beharginak kontratetako orduan inplikazino handiagoa izatea eskatu dabe, “oso inplikauta dagozan eta euren narrua izten daben personak dagozalako”, baina badagozalako “profesionaltasun falta handia” daukienak be. Gerokultoreen eskasia “errealidadea da”; izan be, “onartu ezin diran ratioak” egoten jarraitzen dabe, eta horrek “eragin handia dauka covid-19aren garai honetan emoten dan arretan”.

Zentroko zuzendaritzari eta, hedaduraz, Aldundiari, txosten bat eskatu deutsee Abeletxe egoitzan izandako heriotzen kopurua benetan argitzeko; izan be, bertaratu diran personek hasieran emon dituen datuak inplikautako familien eta eskelen bitartez batu dira.

Batzarretako taldeek euren “doluminik eta alkartasunik handiena” erakutsi deutse Maria Pilar Docampo Martinezi, Maria del Puerto Escalera Fuerteri eta Maria Jesus Beitia Aranari, eta Batzarretara etorri izana eskertu dabe, eta baita “esperientzia gizatiarragoak partekatzeko” erakutsi daben interesa be; izan be, Izaskun Duque EH Bilduko batzarkideak azaldu dauenez, Bizkaiko Batzarretako eztabaidak “teknikoagoak” izaten dira.

Biktimen senideen eskaerea ez da hutsean geratu; izan be, taldeek, aho batez, eta Talde Berezia/PPBren ekimenez, pandemiak Abeletxe egoitzan eragin dituan heriotzen kopurua jasoko dauen txosten bat Aldundiari eskatzea erabagi dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

FAMILIARES DE LA RESIDENCIA ABELETXE CRITICAN EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA LA GESTIÓN DE VITALITAS Y LA DIPUTACIÓN

- Representantes de las familias con residentes fallecidos en la residencia Abeletxe, de Ermua, han denunciado hoy en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía la pérdida de “casi la mitad” de los usuarios y usuarias durante la pandemia y la “falta de profesionalidad” de los gestores, y han pedido mejoras en el sistema de cuidados.
- Los grupos junteros acuerdan por unanimidad pedir a la Diputación un informe con los datos de fallecidos que ha provocado la pandemia en el centro de Vitalitas.

(Bilbao, a 5 de febrero de 2021). Tres familiares de personas fallecidas en la residencia privada de Abeletxe, de Ermua, han acudido hoy a las Juntas Generales de Bizkaia “en busca de respuestas” e informar a los grupos junteros del impacto que ha supuesto en vidas humanas el covid-19. En su comparecencia en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, su portavoz, María Jesús Beitia, ha demandando la asunción de responsabilidades a la empresa privada Vitalitas y, también, a la Diputación Foral de Bizkaia por subvencionar plazas concertadas.

Estas familias señalan que “un total de 50 personas” han perdido la vida en la residencia de Ermua desde que se inició la pandemia; “31” de ellas en un corto periodo de “10 días”. “Casi la mitad” de sus residentes ha fallecido en este centro desde el mes de marzo, en buena medida debido a una “pésima” gestión de la dirección de la residencia, a la que piden responsabilidades. “Con una buena gestión algunos residentes seguirían con vida”, ha dicho Beitia.

Los familiares entienden que la “privatización” de los servicios asistenciales “genera muerte” y han denunciado que el cuidado de los mayores se ha convertido en un negocio de “fondos buitres”.

Ante los representante políticos de Bizkaia, las familias han advertido que han ido a la Cámara foral “en busca de respuestas”. Buscan respuestas sobre porqué se ocultaron contagios, porqué los informes médicos “no coincidían” con lo que se decía en la residencia, o porqué llegaron familiares enfermos a los centros sanitarios “en un estado lamentable, deshidratados y desnutridos”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Además de buscar responsabilidades, los familiares han pedido “mejoras” en la residencia y en el sistema de cuidados. Esperan que la pandemia sea “un punto de inflexión” para establecer inspecciones “sin aviso previo”, aumentar el ratio de gerocultoras, abrir una investigación y dar explicaciones, mejorar las condiciones generales de las residencias y generar canales de comunicación con las trabajadoras, ya que éstas “son silenciadas por el miedo”. Para ellas, los familiares han tenido unas palabras de agradecimiento porque “lo han dado todo” por nuestros mayores. “No les ha faltado cariño y humanidad.”

En este sentido, han solicitado también una mayor implicación a la hora de contratar al personal “porque hay gente muy implicada que se deja la piel”, pero hay otra “con falta de profesionalidad”. La escasez de gerocultoras “es una realidad” en el centro, ya que se siguen produciendo “ratios inasumibles” y esto “influye en la atención en el periodo del covid-19”.

Han solicitado a la dirección del centro y en extensión a la Diputación, al ser un centro con plazas concertadas, un informe en el que se aclare realmente el número de fallecimientos en la residencia de Abeletxe, ya que los datos ofrecidos por ellas mismas en la sesión, han sido reunidos a través de las familias implicadas y de las esquelas.

Los grupos junteros han trasladado a las tres allegadas, María Pilar Docampo Martínez, María del Puerto Escalera Fuerte y María Jesús Beitia Arana, su “más sentido pésame y solidaridad” y han agradecido su presencia en la Cámara, y el interés por “compartir experiencias más humanas”, ya que el debate en el Parlamento se suele mover por derroteros “más técnicos”, ha apuntado la juntera de EH Bildu, Izaskun Duque.

La petición de los familiares de las víctimas no ha caído en saco roto, ya que los grupos han acordado, por unanimidad y a iniciativa del grupo Mixto PPB, pedir a la Diputación un informe que incluya el número de fallecimientos que ha provocado la pandemia en el centro de Ibeletxe.